



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Non da jaiobarri dan juduen erregea?”

2023ko urtarrilaren 1a
Jaunaren Epifania (A)

Mateo 2, 1-12.

Jesus Judako Belemen jaio zan Herodes erregearen sasoian. Aldi haretan Mago batzuk etorri ziran sortaldetik Jerusalemara, itaunka: «Non da jaiobarri dan juduen erregea? Haren izarra ikusi dogu sortaldean eta Bera gurtzera gatoz».

Barri honegaz larritu egin zan Herodes erregea, eta Jerusalem guztia haregaz batera. Orduan, abadeburuak eta lege-maisuak baturik, Mesias non jaiotekoa zan itaundu eutsen. Hareek erantzun eutsoen: «Judako Belemen, honan idatzi eban-eta profeteak:

"Eta zu, Judako Belem, ez zara, ez, Judako urietan txikiena; zugandik urtengo dau-eta buruzagiak, nire herri Israelen errege izango danak"».

Orduan Herodesek, Magoei isilka dei eginik, izarra noiz agertu jaken jakin eban zehatz. Ondoren, Belemara bialdu zituan, esanez:

«Zoaze, eta jakin arduraz umearen barri, eta, aurkitzen dozuenean, esaidazue niri, neu ere gurtzera joan naiten».

Hareek, erregeari entzun ondoren, joan egin ziran. Eta bat-batean, sortaldean ikusitako izarra aurretik jarri jaken, umea egoan lekuaren gainean gelditu arte. Izarra ikusi ebenean, berealdiko poza hartu eben. Etxean sarturik, umea ikusi eben, Maria bere amagaz, eta, ahuspezturik, gurtu egin eben. Ondoren, euren kutxak edegita, erregaluak emon eutsoezan: urrea, intsentsua eta mirrea. Gero, Herodesegana ez bihurtzeko albistea amesetan harturik, beste bide batetik joan ziran euren lurraldera.

Zoaze, eta jakin arduraz umearen barri, eta, aurkitzen dozuenean, esaidazue niri, neu ere gurtzera joan naiten.

ARGIARI ERANTZUN

Jose Antonio Pagola

Paul Tillich teologo handiaren arabera, gizaki modernoaren tragedia handia sakontasunaren alderdia galdu izanean datza. Gizakia jada ez da gai nondik datorren eta nora doan galdetzeko. Ez daki galdetzen zer egiten duen eta bere buruaz zer egin behar duen, bere jaiotzaren eta bere heriotzaren arteko tarte labur honetan.

Galdera hauei gaur egungo gizon-emakume askok ez die jada erantzunik ematen. Are gehiago, planteatu ere ez ditu egiten «sakontasunaren alderdi hori» jada galdua duelako. Gaur egungo belaunaldiek ez dute jada adorerik arazo hauek planteatzeko, iraganeko belaunaldiek planteatu izan dituzten seriotasun eta sakontasunez. Nahiago dute ilunpean ibiltzen segi.

Horregatik, geure garai honetan berriro gogora ekarri beharra dugu hau: fededun izatea, beste ezer baino lehen, sutzuki galdera egitea dela geure bizitzaren zentzuaz eta erantzunari irekirik egotea, nahiz ez ikusi artean argi eta zehatz.

Magoen kontakizuna, Eliz Gurasoen ustetan, pertsona batzuek eman diguten etsenplu handia izan da; hain zuzen, paganismoaren lainopean bizirik ere, federa dei egiten zien argiari leial erantzuteko gai izan ziren. Beren jardueraz, Kristoganako bideari leial ekiteko deia entzutera estu gonbidatzen gaituzten pertsonak dira.

Geure bizitza eskuarki existentziaren azalean gauzatu ohi dugu. Zeregin, harreman, arazo, topaketa, askotariko betebeharrak harat-honat garabiltzate, eta bizitza aurrera doakigu une bakoitza egin, esan, ikusi edo antolatu beharreko zerbaitez betez.

Horrela, arriskua izan ohi dugu geure nortasuna bera ere galtzeko, beste gauza askoren artean gauza bat gehiago izateko eta norantz jo jakin gabe bide eginez bizitzeko. Ba ote da gure bizitza norabidetzeko gai den argirik? Ba ote da gure gurari eta ametsik sakon-sakontezako erantzunik? Kristau-fedea bizitzetik, bada erantzun bat. Argi horrek distira dago jada Betleemen jaiotako Haur horrengan.

Garrantzizko gauza, ilunpean bizi garela konturatzea da, galdua dugula bizitzaren oinarrizko zentzua. Hau aitortzen duena ez dagoke jada urrun bide zuzenaren bila hastetik.

Oxala, geure egunerokotasunean galdua ez bagenu irekirik bizitzeko gaitasuna, dela gure bizitza argitzen ahal lukeen edozein argiri, dela gure bizitzari sakontasuna ematen ahal liokeen edozein deiri.